ELGOIBAR - 672. zenb. - XVI urtea - 2008-10-24

# B
BARREN



# Azken ostikada

## Itziar Gurrutxagak futbola laga du

Argazkia: Odriozola



Iritsi da unea!
Hauxe da beti nahi izan duzun etxebizitza eskuratzeko aukera.
Gsi rekin, lor dezakezu.
Elgoibar
Residencial Géminis
Etxebizitza esklusiboak, garaje eta trastelekuarekin.
Alferrik galdu ezin duzun aukera!
• Etxebizitzek horma-armairuak eta guztiz ekipatutako sukaldea dituzte.
• %50eko deskontua 2. garaje-partzelan.
• Finantzatzeko erraztasunak.
BEREHALAKO ENTREGA
285.000 €-tik.*
Kalitaterik onena, preziorik onenean.
*2 logela, garaje eta trastelekudun etxebizitzen prezioa, BEZ barne.
Eskaintza hau 2008/12/31ra arte da baliagarria.
Informazioa eta salmenta:
94 410 66 55
www.grupogsi.com
Gsi
Ongizate eremuak

# Herrixa maite dut

Herrixa ez da ugaritzen joan diren etxe edo baserriak. Herrixa ez da kale kantoi edo etorbideak, ezta errepide edo errotondak. Ez da ere azkar edo are azkarrago bideetatik dabiltzan kotxeak. Herrixa ez da tabernak edo dendak. Herrixa ez da inguratzen gaituzten mendiak, batzuk zulatuak, besteak estaliak. Guzti horiek herrixa baldintzatzen dute, baina herrixak bizi propioa du. Herrixa bertan bizi garen jendea da; alaia, jatorra, ona, zoriontsua, leiala, baina batzutan aurpegibikoa.

Herriyak daude, baita herriyek, herrixek edo herrik. Puebloak ere egon badaude. Gurea Herrixa da.

Gure herrixan gertutasuna dugu, beroa dugu, hotzari beldurra diogu. Denok elkar ezagutzen dugu, baina benetan ezagutu nahi izaten al dugu? Edonorekin hitz egiten dugu; hala ere, gehiegitan, edozeini buruz hitz egiten dugu. Elkar maite dugu, gure burua maite dugu, inbidia diogu. Ingurukoez arduratzen gara, bestalde besteen bizitzek gehiegi arduratzen gaituzte. Beti gaude ondokoa laguntzeko prest, baina gutxitan laguntza eskatzeko prest. Herrixa beti da justua, injustua ez den guztietan. Herrixak dena eman digu, baina asko ken diezaguke.

Herrixa ezagutzen ez dutenek, azalekoa baino ez dute epaitzen eta gehienetan ez zaie gustatzen. Herrixaren partaide garenok askotan maitemindu egiten gaitu, beste batzutan, berriz, irteteko gogoa baino ez digu ematen, baina zein zaila den herrixari uko egitea.

Ondarrutar burutsu batek esaten duen bezala: “Gu, elgoibartarrok”.

Aio.

Iñaki Laskurain



**“Herrixak dena eman digu, baina asko ken diezaguke”**

*“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com*


BI URTE EGIN DITUGU

ETA HIRUGARRENAREN BILA GOAZ!

ELGOIBARKO BERRIAK MOMENTUAN JASOTZEKO



Egin klik eta ikusiko duzu

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA



# “San Mames beteta ikustea izan da onena”

## ITZIAR GURRUTXAGA

ATHLETICEKO JOKALARI OHIA

*Argazkia: Zigor Alkorta*

**Hamabost urterekin hasi zen Itziar Gurrutxaga elgoibartarra futbolean: Elgoibarren lehenengo, Eibarren gero, eta, azkenean, maila gorenean egon da azken sei urteotan: Athleticen. Kapitaina izan da eta lau Superliga irabazi ditu, eta Euskadiko eta Espainiako selekzioekin ere aritu da; kapitainaren besokoarekin han ere. Baina futbola lagatzeko ordua zela pentsatu, eta utzi egin du. Denboraldi honetan, beraz, aspaldiko partez, partidak armailatik ikusi beharko ditu. Momentu on asko bizi izan dituela dio Gurrutxagak, eta pena ematen diola futbola laga izanak, baina, pozik ere badago: “bizitza normala” egiten du orain. Asteburuak berarentzako dira, nahi duena egin ahal izateko.**

Elkarrizketa osoa irakurtzeko: *www.elgoiBARREN.net*






**Zergatik laga duzu futbola?**

Hamasei urte daramatzat futbolean, eta beti pentsatzen laga egin behar nuela, eta azkeneko bi urteetan azkena zela pentsatzen egon naiz. Oraindik ondo nengoen jokatzen, eta momentu onenean laga dut eta pena da; baina egunen batean iritsiko zen amaiera, eta ez dut nahi izan zain egotea. Nahiago nuen goi mailan lagatzea, gerora ez nuelako jakingo zelan egongo nintzen.

**Zer egiten duzu orain lortutako denborarekin?**

Azken zortzi urtean egin ez dudana! Azken urte horiek nahiko lotuak izan dira futbolarekin: goi maila izan da eta Athleticez gain selekzioarekin ere ibili naiz. Beti nenbilen kanpoan eta azkenean futbola besterik ez daukazu. Eta daukazun denbora libre apurra familiarentzat. Baina ez daukazu denborarik kirola egiteko, lagunekin egoteko, edo kafe bat trankil hartzeko. Udan ere ia ez daukazu oporrik, eta ezin duzu planik egin. Beraz, joan den abuztuan oporrak eduki ditut bai lanean eta baita futbolean, eta aspaldiko partez lasai egoteko aprobetxatu ditut.

**Asteburuak ere zuretzat dituzu orain…**

Azkenean hamasei urtean asteburuak ez ditut izan. Hasieran, Elgoibarren jokatzen genuenean beste maila bat zen eta desberdina zen, baina, bai Eibarren eta baita Athleticen, batez ere azken horretan, profesionalen moduan jardun dugu.

**Sasoi batean zu izango zinen neska bakarrenetarikoa mutilen artean jokatzen. Eta gainera, mutil asko baino hobea…**

Orain normalagoa da futbolean jokatzea, baina lehen ez. Hamabost urterekin hasi nintzen ni, eta orain zortzirekin hasten dira. Hala ere, sekula ez dut gaizki hartu esan didatena. Gustuko nuen, eta ez zitzaidan inporta. Gainera, futbola bakarrik ez, denetarik egiten nuen. Hala ere, inguruan banuen jende gehiago ere. Gaur egun normala da neskak futbolean jokatzea baina lehen, kirola hasi zenean sartzen, azkena izan zen futbola: lehen Elgoibarren ematen zuen neskek eskubaloian aritu behar zutela.

**Sei denboraldi Athleticen, eta 30 gol. Ez da marka txarra!**

Zelai erdian jokatzen dut eta nire lana ez da golak egitea, baina sartzen ditut golak. Ez asko, baina lantzean behin bai.

**Ez asko… Hiru sartu zenituen, barren, partida batean!**

Iruñako Lagunak taldearen aurka sartu nituen: 3 eta 0 irabazi genuen eta nik sartu nituen hirurak. Apur bat arraroa izan zen. Lehendik ere sartuak nituen hiru gol, baina Elgoibarren jokatzen nuenean; beste maila batean.

> **"Futbolarekin ez duzu denborarik beste kirolik egiteko, lagunekin egoteko edo kafe bat trankil hartzeko"**

**Kapitain izatea erantzukizuna da?**

Hori pertsonaren araberakoa da. Batzuk besokoa eramaten dute eta besterik ez, baina nik neuk zerbaitegatik eramaten nuela uste dut: ardura bat hartzen nuen. Denean gainera, ez zelaian bakarrik. Onerako eta txarrerako egon behar dut. Ni batez ere jende gaztearekin ibiltzen nintzen: integratzen laguntzen nien.

**Superliga lau bider irabazi duzue, baina Kopa ez duzue lortu.**

Nesketan lehenengo Liga egiten dugu, eta hori amaitutakoan, Kopa. Hilabeteko lehiaketa izaten da, eta ez da mutilenaren moduan, urtean zehar biak egiten dituztela. Guri gertatzen zaigu denboraldia amaituta egoten dela eta nekatuta egoten garela: Ligak irabazi izan ditugunean, hori daukazu, eta saiatzen zara Kopa ere lortzen, baina beste kontu bat da.

**Futbolean bizi izan duzun momentu onena zein da?**

Momentu onak asko: Elgoibarren momentu oso onak eduki nituen ezer irabazi ez arren, Eibarren hiru-lau gauza irabazi genituen, goragoko mailan geunden, eta asko gozatu nuen. Baina momentu bakarra aukeratu behar badut San Mamesen jokatu genuen lehen urtearekin geratuko naiz: 30.000 pertsonaren aurrean jokatu genuen eta gainera Liga irabazi. Hori bai niretzako, nire familiarentzako eta baita han egon ginen denontzako momentu oso ona izan zen. Oraindik ere bideoa jarri eta emozionatu egiten naiz.

**Eta txarrena?**

Ligak ez ditugunean irabazi nahiko gogorra izan da. Goi mailan zaude eta exigentzia handia da: urte osoa sartzen duzu futbolean, ordu asko, gauza mordoa lagatzen ditugu futbolagatik, eta urte guztia ezertarako ez dela izan sentitzen duzu. Baina momentu txarrak, Ligak irabazten direnean ere edukitzen dira: luzea egiten da urtea, eta tartean momentu txarrak egoten dira. Baina horiek pasatu egiten dira: oro har dena positiboa izan da.

**Entrenatzaile ikusten duzu zure burua?**

Momentu honetan ez, nahiko urte egon naiz lotuta. Eta badakit jendea behar dutela, laguntza behar da eta gu gara akaso gehien dakigunak, gehien sufritu dugunak; eta horregatik gu gara akaso aproposenak. Lan asko dago egiteko, batez ere neskekin. Mutilekin errazagoa izaten da laguntza topatzea. Futbolari jarraituko diot, baina ezin naiz berriro lotu. Momentuz, ez.

**Edurne Burgaña**

# Sei gizon astoaren kontra

Norgehiagoka ikusgarria izango da bihar, azken zapatuko ferian Nafarroa Plazan: astoa sei gizonen kontra arituko da 500 kiloko harriarekin, 17:30etatik aurrera. Hogei minutuan plaza gehien nork egingo duen neurtuko dute.

*Santos* izeneko astoak zortzi urte dauzka. Otsourtia baserriko Inaxio Zubizarretak ia urtea darama astoa prestatzen. Gizon probarako entrenamenduak orain dela hiruzpalau hilabete hasi ziren.

Entrenamenduetako harriak probakoak baino txikixeagoak izaten dira. “Ordu erdiko saioa bada, gehiagotan ibili behar da, 40 minutuan, bada ezpada ere”, azaldu du Inaxiok. Entrenamenduak astean behin edo birritan izaten dira.



## Berrehun urte baino gehiago

Lagun Artea herri kirol taldeko sei lagun lehiatuko dira *Santos* astoaren kontra. Inaxioren iritziz, gizonek aukera handia dute irabazteko. “Haiek entrenamenduetan badakite gutxi gorabehera zenbat egin behar duten. Guk probabilitate txiki bat badaukagu, ekiten erraza bada. Baina guk ez dakigu zenbat egingo dugun, ezta arrastorik ere”, uste du Inaxiok. Beharbada, astoak zaila izango du: “Zoruarekin zer kontraste egiten duen ikusi behar”.

Lehenago ere ibili izan da Inaxio astoak prestatzen, makina bat apustutarako. Beti astoekin. Mandoekin ere jardun izan du pare bat aldiz, baina gehienetan astoarekin.

Gizon-proba azken zapatuko feriara jendea erakartzeko ekitaldia izango da. Goizean baserrietako produktuak izango dira salgai, 13:00etara arte. Trikitilariek azoka girotuko dute eta ganaduaren salerosketari 11:00etan ekingo diote.

## Sasoian sasoikoa

### Gaztaina

Sasoi batean gaztainondo mordoa zegoen. Udazkenean hego haizeak gaztaina oskolez beteta lagatzen zuen lurra, zaharren arabera. Azken hamarkadetan pinuak aurrea hartu badio ere, makina bat gaztainondo galdu dira gaixotasunen ondorioz (txankroa eta tinta). Gaztainondoa bertako zuhaitza da, autoktonoa. Orain dela 10.000 eta 40.000 urteko sedimentuak aurkitu dituzte. Urteetan jaki garrantzitsua izan da gaztaina geurean.

Produktu hauek ere eskuratu daitezke orain: onddoak, esnegorria, zizahoria, intxaurra, urra, sagarra, madaria, pikua, mizpira, babarruna, kalabazina, kalabaza, tipula, patata, tomatea, piper txorixeroa, Gernikako piperra, piper morroia, pipermina, leka, espinaka, Bruselako azatxoak, berakatza, brokolia, letxuga, lollo arrosa, aza, azalorea, eskarola, romanesku aza, apioa, borraja, azelga, tipulina, porrua, erremolatxa eta azenorioa.





**Azken urteotan orkatz kopuruak gora egin du Gipuzkoan. Mendiko animalia izan arren, Deba ibaian ikusi ahal izan dute elgoibartarrek, behin baino gehiagotan gainera. Orkatzek, baina, bitxikeria izateari laga diote, harrapari naturalik ez dutenez, modu bizkorrean ugaltzen ari direlako. Gero eta kexa gehiago daude orkatzen presentziagatik, batez ere basoetan kalte handiak eragiten dituztelako.**

# Orkatzek basoetan eragindako kalteek gora egin dute

Orkatza behin baino gehiagotan azaldu da Deba ibaian. Animalia bitxia da askorentzat. Ibaian agertzen hasi zenean, aldizkari honetara jende askok deitu izan zuen oreina zelakoan.

Inguruotan nahikoa desagertuta zegoen orkatza, eta orain dela urte batzuk hasi zen ugaltzen. Izan ere, sasoi batean errepoblazioak egin zituzten eta beste inguru batzutatik azaldu ziren geurera. Basurdeek bezala, harrapari naturalik ez dutenez, eta Gipuzkoako lurraldearen %60 basoa denez, azken urteotan gora egin du orkatzen populazioak.

## Kalteak Elgoibarren

Orkatzek egindako kalteekin haserre agertu dira hainbat baserritar. Batez ere azken bi urteotan kexak ugaritu egin dira, Elgoibarko basozainaren esanetan. Kalteak basoetan izaten dira gehienbat, landareak gazteak direnean: pinu eta izeiak (abetoak) zuritu egiten dituzte eta haritzari puntak mozten dizkiete. Hori dela eta, Elgoibarko baserritar batzuk baso aldatu berrietan galera handiak izan dituzte.

Kalteengatik konpentsazio sistema egon badago, EHNE sindikatuaren arabera. Horren bidez, kaltetutako zuhaitzak aldatu daitezke. Baina orkatzek kaltea bizpahiru urtetan eginez gero, ezin dira berriz sartu, inguruko arbolak altuagoek txikiei ez dietelako hazten lagatzen.

Orkatzen populazioaren kontrola beharrezkoa dela uste du EHNE sindikatuak. Orain arte, babestuta egon izan da orkatzak ehizatzea. Diputazioak, baina, batidak martxan jartzeko erabakia hartu duela adierazi du basozainak.

Hala ere, basurdetan ibiltzen diren hainbat ehiztarik ez dute orkatzik ehizatu nahi. Izan ere, txakurrak orkatzaren usainera ohitzean, nahastu egiten dira eta gero basurdeen arrastoa ez dute hain errez jarraitzen. Orkatzak uxatzeko errepelenteak ere egon badaude, baina ez dira oso eraginkorrak.

## Taldetxoa

Elgoibarren zenbat orkatz bizi diren jakitea zaila dela uste du basozainak. Itxura guztien arabera, taldetxo bat badago. Orkatzak territorialak dira eta euren eremua markatzen dute.

## Biharko azokan Debarroa jokoa banatuko dute

Bihar, azken zapatuko feriako erosleek *Debarroa* mahai-jokoa eskuratzeko aukera izango dute. Izan ere, hamabi eurotik gorako erosketa eginez gero, jokoa doan banatuko dute. Ekimen horren bidez azken zapatuko azokari bultzadatxoa eman nahi dio Debemenek. *Debarroa* jokoa Debemen eta Deba-Garaiak kaleratu dute, landa ingurunearenganako kontzientzian eragiteko. Deba bailarako maparen gainean antolatu dute jokoa. Hainbat landa-auzo zeharkatu ondoren, ibilbidea amaitzen duen lehenak irabazten du. Partehartzaileek galdera batzuk erantzun behar dituzte.



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**Urriak 25: iruzur eguna**

Oraindik gogoratzen dugu 2002an PNVk eta Ibarretxe planak, inguru abertzaleetan –gurean ere bai– sortu zuten “ilusiotxoa”. Lizarra-Garaziko prozesuak porrot egin eta gero, Ibarretxe “beherapenekin” Madrilera joan zen, eta agian zertxobait lortuko zuela zioten batzuek.

Eta gogoratzen dugu, Ezker Abertzaletik, oinak lurrean, esaten genuela “kontuz, hauek iruzur egin nahi digute, berriro ere. Izan ere, Txibertaz geroztik PNVk Espainian eroso bizitzea erabaki zuen –frankismo garaian ere hala bizi ziren–, eta plan hori, eskasa izanik ere, ez da aurrera joango”.

Eta ilusioa triskatu zen, baina ez espainiarrek ezetza eman ziotelako. Izatez, bagenekien Espainiako erreinuak ezetz esango ziola plan horri, eta euskaldunek aurkez genezakeen beste edozein plani. Abertzale askok itxaropena galdu zuen, PNVk eta Ibarretxek hitza jan eta plana lurperatu zutelako. Ez zioten herriari galdetu, hitz eman bezala, hauteskundeak deitu baizik.

Handik bost urtera, PNVk –PSOEren laguntzaz–, negoziazio eta bake prozesua ezabatu ondoren, Ibarretxe, “beherapenekin”, Madrilera bidali zuen, berriro ere. Erabakitzeko eskubidea aldarrikatzera, omen.

Erabakitzeko eskubidea euskaldun gehienok nahi dugun askatasunaren giltza izanik, elektoralki erabiltzeak, norberaren interesen arabera manipulatzeak, Ezker Abertzalekoak kartzelaratuta daudela eta, aprobetxatzeak –hori baita Ibarretxe-PNV egiten ari direna–, ez digu ilusiorik egin, oraingoan ere.

Alde batetik, bagenekien, hasieratik, ustezko eskubide hori ez zela euskaldun guztientzat izango, Euskadikoentzat bakarrik baizik, eta bestetik, Autodeterminazioaren aldeko hautua –herri honen gehiengoak nahi duena–, saihesteko, izkutatzeko, denboran luzatzeko, eta usteltzeko erabili nahi izan dutelako. Azken finean, iruzurra egiteko.

Asteak pasa ahala, hau guztia baieztatuz joan da: hasieran Erabakitzeko Eskubidea zena desinflatzen joan da, estatus juridikorik gabeko galdeketa izatera etorri arte, eta iritzi emateko eskubidea bihurtu dute, azkenik. Hamaika aldiz esan diete boteredunei, geroztik, ez duela ezer aldatzeko balio, ez dela erreferenduma, ez dela benetako galdeketa. Halere, Madrilen hori ere ez diete utzi.

Zein izan da inposaketa eta zapalketa horri eman dien erantzuna? Ibarretxek berriz ere, hitza jan eta plana lurperatu du. Hauteskundeetara begira jarri da.

Sinadura bilketa aipatu zuten, baina inork ez daki bi dozena jaso dituzten. Eta, orain urriaren 25ean, zentzu gabeko ekintza motel hau antolatu dute, denbora galtzea dela dakiten arren. Hau idazten ari garen honetan ikusi ahal izan dugu, gainera, PNVk PSOEri aurrekontuak aurrera ateratzen lagundu diola Madrilen.

Laster etorriko zaigu, Patxilopez bigarren beherapenekin. Baietz PNVk irentsi?

Baietz, berriro ere, iruzur egin, estatutua berrituaz, edo berpiztuaz?

**Elgoibarko Ezker abertzalea**

Barren

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Noemi Otegi

Bertako, kanpotar edo kanpotar-kanpotar! Hau hasiera, eh pittil!! Ez al zara inoiz nonbaiten erdi kanpotar edo arrotz sentitu? Askotan entzuten ditut migrazioei buruzko gertakizun eta bitxikeriak, holandar bat hemen bizi dela eta euskaraz primeran dakiela; edota joan eta bertako familia bat bertaratu dela, eta poz-pozik daudela mendi puntan bizi izaten; txinako xelebre bat, aurreskua dantzatzen ikastera Donostiara joan dela; Argentinara joan zirenen bilobak euskara ikasten Lazkaoko barnetegian daudela, eta abar luze bat. Baina, paraje exotiko batetik etorri partez, Itsasondotik etorri izan balitz Elgoibarrera? Orduan zer zara? Bertakoa, erdi kanpotarra ala guztiz kanpokoa?



Ainara Sedano

Egia da, Noe, gaur egun ez dela erraza inon etxean sentitzea. Jendea atzera eta aurrera dabil munduan etengabe, eta guri gauza bategatik edo besteagatik ere tokatu izan zaigu, ezta? Betidanik ere mugitu izan da gizakia, familia atzean lagata, bere herritik kanpora lana topatzera, maitasunaren kontura, abenturen bila, ikasketak amaitzera, hizkuntza berriak ikastera... baina gaur egun are gehiago dela esango nuke, ezta? Edonon egiten dugu topo, zuk esan bezala, kolore, erlijio eta mota guztietako pertsonekin; batzuk beharragatik batzuk plazer hutsagatik. Gu ere, gure gurasoekin konparatuta, nahikoa bidaiatutakoak ere bagara, ezta? Agian etxean sentiaraziko gaituen tokiaren bila…

## “Arraro sentitu naiz kanpokoa naizela aipatu izan didatenean ”

Egia badiotsut, herrian ondo barneratua ikusten dut nire burua, jendea ezagutzen dut, lagunak baditut eta familia ere bai! Ahaztu gabe, BARRENen ere parte hartzen dugula!!! Baina inoiz baten batek aipatu izan didanean ni kanpokoa naizela, arraro sentitu izan naiz. Kanpo-kanpotik, hau da urrunetik etorri direnen eskubideen alde hainbeste lan egiten den herri honetan (baita kontra ere, denerako dago gure inguruan), barrutik eta gertutik etorri dena arrotza izan liteke. Badauka grazia, ezta? Etorkinen alde lanean dabilenak edo behintzat aho bete beraien eskubideak aldarrikatzen dituenak, zu kanpokotzat ikustea. En fin, kanpo-kanpoko, barru-barruko edo nahi den labela jarrita ere, gu beti bezala gurera!! Gauden lekuan ondo sentitzen garen bitartean, bertako eta bestela kanpoko!! Lehenengo *Zozoak Beleari* atalean esan genuen bezela, gu pozik gauden bitartean...

## “Etxean egotearen sentsazioa maite dudan jendeak ematen dit”

Denbora pasa ahala, nire kasuan behitzat, esperientziek eta alde batetik bestera ibiltzeak erakutsi didate “etxean sentitzea” ez didala leku konkretu batek eragiten. Egia da toki batera beste batera baino lotuagoa sentitzen naizela, toki bakoitzean bizitako esperientziengatik, barnean gordetzen duzun gogorapen goxoren batengatik edo bertan bizitzen emandako urteengatik. Baina gero eta argiago daukat “etxean sentitzea” ez dela toki konkretu batean egotea, jaio zaren tokian bizitzea... Niretzat behintzat etxean egotearen sentsazioa maite dudan jendeak ematen dit. Nire etxea haiek dauden tokian izango da beti. Haiek sentiarazten nautelako etxean.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

Frankismoaren ikur delakoan, arkitekto elgoibartarraren omenezko kalearen izena kentzeko eskatu du Elgoibar-1936 taldeak.

# Pedro Muguruza etorbideari izena aldatuko zenioke?



Bai, aldatuko nioke izena. Gainera leku askotan ari dira frankismo garaiko ikurrak kentzen, eta niri ondo iruditzen zait. Legea atera badute, bete dezatela. Seguru jende askok ez dakiela nor zen Pedro Muguruza arkitektoa, baina nik hori jakin banekien.

**Felix Garcia-Abad**
**68 urte, jubilatua**



Niri bost axola! Gai hori ez zait interesatzen, eta egia esaten badizut, ez nekien Pedro Muguruza nor zen ere. Herritarrak izen horrekin ohituta daude, eta izen berria jartzeak nahasmena sortuko luke. Nik eutsi egingo nioke etorbidearen izenari. Bost axola.

**Silvino Santos**
**64 urte, jubilatua**



Ez, nik izen berbera lagako nuke. Erdiguneko kaleak ezagutzen ditut, baina kale berrien izenak ez dakizkit, eta beste izen batek nahasmena ekarriko luke. Nik ezagutzen nuen, Pedro Muguruza. Madrilen denbora asko pasatzen zuen eta udan etortzen zen Elgoibarrera.

**Maria Etxaniz**
**75 urte, etxekoandrea**



Nik ez nioke izena aldatuko. Pedro Muguruza herriko arkitekto ezaguna izan zen, eta lan asko egin zituen. Nik ez dut frankismoarekin lotzen zuzen-zuzenean. Gainera, kale horretan jaiotakoa naiz, eta niretzako beti izan da Pedro Muguruza kalea.

**Arrate Iriondo**
**44 urte, irakaslea**













**Txiki Egunean zezenak gure portaleko atea hondatu zuen eta oraindik ez dute konpondu:** "San Bartolomeak aspaldi amaitu ziren, baina gure portaleko atea oraindik hondatuta dago. Txiki Egunean zezenak kristala apurtu zuen, eta Udaleko arduradunek esan ziguten konponduko zutela, baina oraindik ez dute ezer egin. Aterik gabe gaude, eta azkenaldian gertatu diren lapurreten ondorioz, kezkatuta gaude. Udalari eskatu nahi diogu lehen bailehen konpontzeko atea". ⇒







⇐ **Morkaiko kalean obrak egin dituztenetik, uraren kanalak gainezka egiten du:** "Gure kalean obrak egin dituzte, eta uraren kanala itxi egin dute. Euria egiten duenean gainezka egiten du, eta putzu handiak sortzen dira. Obrak egin eta gauzak hobetu beharrean, okerrago laga dituzte. Bestalde, lehen asteburuetan piboteak jartzen zituzten kotxeak ez pasatzeko, baina obren ondorioz orain ez dute bidea ixten, eta gure etxe aurreraino sartzen dira autoak. Musika oso altu jartzen dute, eta zarataren ondorioz ezin izaten dugu lorik egin. Gure kalean arreta gehiago jartzeko eskatu nahi diogu Udalari".

**Elgoibarko ginekologia zerbitzuari buruzko hainbat kexa jaso ditugu azken asteotan BARRENen:** "Ez dago eskubiderik! Ginekologia azterketa egiteko txanda hartzera joan naiz hilabete honetan, eta 2009ko abendurako eman didate zita. Urtebete baino gehiago! Denok dakigu emakumearentzako zein garrantzitsua den ginekologia azterketak egitea, eta gure herriko zerbitzua oso motz geratzen da. Biztanleria asko handitu da azken urteotan, eta nire ustez, ginekologia zerbitzuak ere zabalagoa izan beharko luke".

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* / 943-74 41 12



ESKERTZA

## NEMESIO ANSOLA ARANA

2008ko urriaren 20an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

## CELESTINO CARRASCO LOZANO

2008ko urriaren 19an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Aste honetan bi urte egin ditu www.elgoiBARREN.net atari digitalak

Bigarren urtean 149.301 bisita izan ditu, lehenengoan baino 32.144 gehiago

Elgoibarko orainkaria izateko asmoarekin jarri zuen martxan Elgoibarko Izarrak *www.elgoiBARREN.net* atari digitala, 2006ko urriaren 23an. Egunero bizpahiru albiste ematen ditu, eta helburua notiziak gertatu ahala ematea da. Herritarrek gainera, albisteak posta elektroniko bidez jasotzeko aukera daukate, harpidetza bidez. Dagoeneko 235 harpidedun ditu web guneak.

### Lehenego urtean baino bisita gehiago

Bigarren urteko datuei erreparatuta, lehengo urtean baino bisita gehiago izan ditu atariak. Guztira, 149.301 bisita izan ditu; iaz baino 32.144 gehiago. Bisita gehien izan zituen eguna martxoaren 10a izan zen, Espainiako Hauteskunde orokorren hurrengo egunean, hain zuzen ere. Egun horretan 983 bisita izan zituen atariak. Bisita gehienak Espainiatik egin dira (142.364). Alemaniatik 1.297 bisita izan ditu eta AEBetatik 859.

### Atal berriak

Ataria atal gutxi batzurekin abiatu zen, baina poliki-poliki informazio gehiago aurkitu daiteke bertan. Bigarren urte honetan hainbat atal berri jarri ditu martxan: elkarrizketak (hilean behin elkarrizketa sakona egiten diote herritarren bati); zine agenda (hileko pelikulei buruzko informazioa eskaini), bideo inkesta (hilean behin herritarrei galdera egin eta bideoa grabatu); blogak (momentuz zortzi blogari daude) eta iragarki laburrak (merkatu txikiko iragarkien atala). Aurrera begira, dauden atalak indartu eta berriak jarriko dituzte martxan.

### Herritarrak protagonista

Herritarrak hartzaile izateaz gain, emateko aukera ere badute Elgoibarko orainkarian, eta eurak dira protagonista nagusiak. Hirugarren urteari begira, herritarren parte hartzea handitzea da *www.elgoiBARREN.net* atariarenhelburua, eta horretarako bideak prestatzen ari dira. Bestalde, hirugarren urteurrenerako diseinu berria jarriko dute martxan.




### Bigarren urteko datuak:

- Bisita kopurua: 149.301
- Bisita gehien izan dituen eguna: martxoak 10; 983 bisita.
- Erabiltzaile kopurua: 30.222
- Ikusitako orrialdeak: 327.667
- Emandako albisteak: 648
- Harpidedun kopurua: 235

Informazio gehiago: *www.elgoibarren.net*

## Enpresa munduan euskara sustatzeko 30+10 mintegia egin dute IMHn



Erreminta-makina sektoreko enpresetan euskara sustatzeko helburuarekin sortu zen 30+10 mintegia orain dela hiru urte. Atzo, urriak 23, mintegiaren hirugarren edizioa egin zuten IMHn, eta hainbat herrialdetako enpresariak bildu ziren. Aurreko bi urteetan bezala, merkatuak eskaintzen dituen produktuak enpresei gerturatu zizkieten, eta bestalde, hainbat enpresak euren esperientzia eta praktika onak azadu zituzten. Euskal Herriko enpresekin batera, Kataluniako Tallers per la Llengua enpresa eta Belgikako Université de Namur izan ziren atzoko ekitaldian.

## Lekua Santa Klara



Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgoibarko Udalaren esku laga du Elgoibar-Markina GI-2636 errepidearen 300 metroko tartea, Santa Klara kalean, hau da, Txankakuako errotondatik Idotorbe-San Pedroko bidegurutzerainoko zatia. Aspaldi egin zion eskaera Elgoibarko Udalak Aldundiari, eta, azkenik, aintzat hartu dute elgoibartarren eskaera. Aurrerantzean, beraz, Udalak konpondu beharko ditu ingurune konplikatu horretako arazoak, trafikoak sortutakoak, batez ere.

## Izena Pedro Muguruza

Elgoibar1936 taldeak Pedro Muguruza etorbideari izena aldatzeko eskatu du, arkitekto elgoibartarrak frankismoarekin izan zuen loturagatik. Pedro Muguruza Valle de los Caidos monumentuaren arkitektoa izan zen Francoren agindupean. Frankismoaren ondorioz Elgoibarren hil zirenekiko errespetuagatik, eta baita Memoria Historikoaren Legeak hala dioelako, kale horri beste izen bat jartzeko eskatu dute.

## Irudia ‘Hitza Hitz’ ekimena aurkeztu dute

Debabarreneko EAJ, EA, EB eta Aralar alderdietako ordezkariek “Hitza Hitz” Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimen bateratua aurkeztu zuten joan zen barixakuan, hilak 17. Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartu zuen Legearen arabera, urriaren 25ean euskal herritarrei kontsulta egitea iragarrita zegoen, baina Espainiako Gobernuak honen kontrako helegitea jarri zuen, eta Auzitegi Konstituzionalak debekatu egin zuen. *Hitza Hitz* lelopean, Gernika eta Gasteiz arteko toki zehatzetan biltzera deitu dituzte herritarrak. Ekimen horretan, “Euskal”, “Herria”, “Bakea”, “Erabakia” eta “Bai” hitzak osatuko dituzte.




### Esperientzia Eskola urriaren 27an Nafarroa Plazan

Debabarreneko Esperientzia Eskola plazarik plaza ibiliko da, herritarrei informazioa emateko asmoz. Elgoibarrera datorren astelehenean etorriko dira Esperientzia Eskolako kideak. Nafarroa Plaza inguruan ibiliko dira goizeko 10:00etatik 11:30era.

### Andoni Egañak kanta bat egin dio Gotzon Garateri

Vivaldiren *Adagio*-ko doinuak oinarri hartuta, kanta-letra egin du Andoni Egaña bertsolariak, hil berri den Gotzon Garate euskaltzale eta jesuitaren omenez. Joan zen asteburuan abestu zuen estreinakoz jendaurrean, Loiolako basilikan, Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloan. Hauxe da abestia:

“Gotzon Garateri/ orain bi aste joan zenari/ heldu bazion lanari/ orduz gero ari/ jardun ari.../ Bere ametsak euskararentzat!/ Gotzon Garate zen/ langile fina ta ona hain zuzen./ Gotzon Garate da/ noizbait aurrera egiteko era./ Gotzon Garate da arte ta da/ ate eta da maite./ Adio Gotzon, gero arte”.

### Mendaroko MunLet musika taldea Kafe Antzokian

Mendaroko MunLet musika taldeak Bilboloop jaialdian hartuko du parte gaur (urriak 24) gauean, Bilboko Kafe Antzokian. Mendaroarrekin batera, Loto talde portugaldarra eta Dragonette ingelesak arituko dira. Kontzertua 21:30ean hasiko da.



TXIKI BARREN

# ENEKO ORIBE
## 11 URTE

**Badakizu elkarriketa hau herri guztiak irakurriko duela?**
Bai.
**Eta ez duzu lotsarik sentitzen?**
Ez.
**Orduan ez zara mutil lotsatia, ezta?**
Bakarrik gauza batzuetarako: sentimenduak espresatzeko, adibidez.
**Zelan hasi da aurtengo ikastarturtea?**
Joan zen urtean baino hobeto, irakasle guztiak ezagutzen ditugu-eta.
**Jolasorduetan zer egiten duzu?**
Futbolean jokatu, seigarren mailako mutilekin. Batzuetan neska batzuk jokatzen dute.
**Eskolatik irtendakoan, zer egiten duzu?**
Ez badaukat eskolaz kanpokorik, lagunekin jolasten dut.
**Eskolaz kanpoko asko dauzkazu, ala?**
Musika, tronpeta eta karate. Horiek bakarrik.
**Non ibiltzen zara kalean?**
Upaiz Zaharra inguruan. Bestela, Mintxetan.
**Perretxikotara joan zara aurten?**
Oraindik ez. Nire aita, bai; baina ni, ez.
**Beste urteren baten joan izan zara?**
Bai. Perretxiko handiak hartzen ditugu. Nire aita hobea da.
**Zelan ikusten duzu zure burua 25 urterekin?**
Nahiko nuke abeslaria izatea. Rock estiloan. Ilea orain bezala, oraindik ezkondu gabe eta nobiarekin.
**Eta 50 urterekin?**
Ezkonduta, seme-alabak etxetik joanda eta elgoibarren bizi izaten.
**Nora egingo zenuke bidaia?**
New Yorkera.
**Nora ez zinateke joango inoiz?**
Belgikara.



## Ikuskizuna



### "Irudimendeko hiria"

Gorakada antzerki taldeak umeentzako ikuskizuna eskainiko du domekan, hilaren 26an Herriko Antzokian. "Irudimendeko hiria" emanaldia 16:30etan hasiko da. Hainbat herrialdetako ipuin tradizionalak harremanetan jarri dituzte antzezlanean. Guztien nahasketak istorio berria ekarri du.

# NONDIK DATOR TXORROKO URA?

**Asier Ruiz**
**6 urte**
Badakit! Errekatik dator. Hortik tubora joaten da eta gero etxera. Euriko ura errekara joaten da.





**Nerea Beristain**
**6 urte**
Errekatik dator. Erreka plazako zubian dago eta handik etortzen da ura etxera.

**Paula Antxustegi**
**5 urte**
Menditik. Lainoen ura da. Gero errekatik etortzen da. Han goian errota bat zegoen ura garbitzeko.





**Jon Mujika**
**5 urte**
Menditik. Gero ibaitik. Ibaia batzuetan mendian dago, eta beste batzuetan ez. Itsasoko ura da.

**Iker Etxeberria**
**6 urte**
Menditik. Zuhaitz baten ondotik jaiotzen da. Ura menditik doa eta bapatean ez duzu ikusten.





**Eider Cerdeira**
**6 urte**
Menditik, erreka batetik. Gero handik etxera joaten da. Ibaia mendian dago, aitatxok esan dit.

## Irteera

### Herri Eskolako mendi taldearen lehen irteera

Herri Eskolako mendi taldeko neska-mutilek aurtengo lehenengo irteera egin zuten irailaren 28an. Lehenengoa izanik, ibilbidea nahiko erraza izan zela aitortu dute: Getaria-Askizu-Getaria. Itsasotik gertu, txakoli mahasti artean ibili ziren. Paisaia zoragarriekin gozatu zutela azaldu dute.

Gainera oso suerte handia izan zuten, eguraldi bikaina lagun izan zuten eta. Argazkia, Askizuko elizaren aurrean.



## Gure berbak

### Aditza (30): Agintera III

Aginterazko aditzen azken atal honetan, háren gaineko azken oharrak jasoko doguz.

Aditz jokatua erabili ordez, jokatugabia (aditz-partizipiua) ere asko erabiltzen da agintean, ahozko jardunian:

- *Adarrik ez (eg)i(d)ak jo / Adarriz ez jo.*
- *Erosi (egi)zu liburu hori / Erosi liburu hori.*

Batzuetan, aditza isiltzeraiño ere:

- *Adarrik ez egidak jo! ⇒ adarrik ez i(d)ak jo! ⇒ Adarrik ez jo! ⇒ Adarrik ez!*

Hirugarren pertsoniak ez dau berezko formarik agintean, baiña erabili leikez subjuntiboko formak (ondoren -eLA menderagaillua debela) "ziharkako" agintera modu bat litzake hau. Honela, adibidez:

- *Esan deixola egixa Patxik Mireni.*
- *Ekarri deizula lapitza (Joxek zuri).*

Aginterazko azken adibide batzuk ekarriko doguz hona, aditz modu horren erabilleria argixago geratu deiñ:

